

**GURE IBAI HONEN BI ERTZAK**

(kale salmoa)

*“Basauntza irrikaz erre kara bezala, halaxe ni zuregana.”**Hala ere, sarritan jardun dut nire buruarekin**¿Jainkoa zertarako? galdezka.**Eta askotan ez dut aski izan begirada atzera bota**eta gardena, aratza zintzaizkidaneko egunak**maitale aspertuen nostalgiaz gogoratzearekin:**hain izan da nire ibaia ur ia usteleko putzu narzisista!**Nahi baino gehiagotan nahasi ditut zure urjauzien durundiak**sortarazten zidan harridura eta soinuaren monotoniaren nekezia,**bihotzaren turbinak mugitzeko eragile izan ordez**izango balitzait bezala balazta.**Ezer gutxi naiz, zizare-kume, egunero ilusiora jaio beharraren eztena**somatzen duen ar gaixo, errena.**Eta, halere, esperantzaren profeta lanetara deitu nauzu,**grisaren funtzionari izateari uko egin eta argiaren leherketaren militantziara.**Egizu nire ezerezen arregura gerta dakidala zuganako jauzi!**Badakit gure herri honen elkargo izateko agindua eman didazula,**eta badakit zure bakezko ibaiaren urak zenbat eta handiagoak izan**orduan eta urrutiago diruditela ibaiaren bi ertzetan,**elkarri harrika, Euskal Herriko auzoak.**Badakit inoiz bainoago zubi izatera deitzen nauzula,**zure haragiaz, zure hatsaz jantzita, nire gorputzak lot ditzan**irainezko hitzez gainezka dirauten alde bietakoen ezpainak...**Aspaldian esan izan balidate halako zereginik emango zenidala**agian, gaztetasun joanaren ausardiaz, -Atlas berria bainintzan-**bizkarrean hartuko nukeen mundua, lanagatik fierki harro nire begiak.**Harrotasuna, ordea, gazte gineneko sasoiaren doinua dela**sinesten dut oraintxe bertan.**Kainabera sentitzen naiz, zamaren astunagatik, malgutasun ezagatik, pitzatua.**Haatik, zure promesari sinetsita, aurrera saiatuko naiz,**zuk agindu baitidazu ez naizela hautsiko zurekin dihardudan bitartean.**Hala dadin nago basauntza iturbegiekin ametsetan bezala**ni ere zure irrikaz.*

**LAS DOS ORILLAS DE ESTE RÍO** (salmo callejero) “Como el ciervo las corrientes de agua, así te ansío yo” /Y, sin embargo, alguna vez he gritado: Dios, ¿para qué te quiero?/ Y a menudo no me ha bastado volver la vista atrás/ y recordar -con la nostalgia de los amantes aburridos-/ los días en que me eras transparente, diáfano./ ¡hasta tal punto ha sido mi río casi podrido pozo narcisista! Más veces de las que he querido he mezclado la admiración/ del rugir de una cascada y lo cansino de la monotonía de su sonido./ como si en vez de ser empuje que moviera las turbinas del corazón/ me hubiera resultado freno./ Apenas soy nada, cría de lombriz, gusano que siente el aguijón/ de tener que nacer cada día a la esperanza. Y estoy cojo./ Mas me has llamado al quehacer de los profetas de la ilusión./ a la militancia de la explosión de la luz/ olvidándome de la incoherencia, de ser su funcionario./ ¡Haz que este quejido mío de la nada me sea trampolín hacia ti!/ Sé que me has dado el encargo de ser comunión para mi pueblo/ y sé que cuanto más profundas sean las aguas del río de tu paz/ más lejanas me parecen las dos orillas del río./ como dos barrios que se baten a pedradas./ Sé que más que nunca me has llamado a ser puente./ para que, vestido de tu carne, animado por tu aliento./ mi cuerpo junte los labios de los que sólo saben decirse palabras de escarnio./ Si una vez me hubieras dicho que ibas a darme un comedido parecido./ tal vez con el atrevimiento de mi juventud pasada/ -arrogancia de un Atlas nuevo-/ me habría echado el mundo al hombro./ mis ojos furiosamente orgullosos por el trabajo./ Pero ahora creo que la arrogancia sólo es melodía/ de los días en que éramos jóvenes. Me siento caña/ por lo terrible del peso, por la falta de flexibilidad, quebrada./ Mas creyendo en tu palabra trataré de seguir hacia adelante/ pues me has prometido que no me romperé del todo mientras me doble contigo./ Y ansío que así sea, como la cierva suspira por los manantiales de agua.



### **EZ DAKIT EZER**

*Irakasle naiz, eta ez dakit ezer.  
 Ikasle batzuek  
 errukiz begiraten didate  
 eta ikasiko balute bezala egiten dute.  
 Lepoan nesken begirada somatzen dut  
 ilargiaren errainu hotza bezalakoa  
 Ez naiz ausartzen aurrez aurre begiratzera  
 eta hitz zalantzakorrez aitortzera  
 ez dakidala ezertxo ere  
 eta ez Sokratesen antzera  
 hark bai baitzekien zergatik ez zekien.  
 Nik ez dakit zergatik ez dakidan.  
 Jaso dudan kondenarik zorrotzena  
 ez da zikuta edan beharra  
 baizik eta zerbait badakiela uste duenari  
 azterketa jarri beharra.  
 Adin horretan zerbait jakin uste izaten da.  
 Gazteria labanen ertzean dabil  
 begiak estalirik  
 eta uste du  
 han behean dagoela zoriona.  
 Ni orain neurritsua naiz.*

---

**No sé nada** / Soy profesor y no sé nada. / Algunos alumnos / me miran con lástima / y simulan que aprenden algo. / Ellas posan en mi nuca su mirada / como rayos de luna fría. / Tengo miedo a volverme / y a confesar con palabras vacilantes / que no sé nada / y no como Sócrates / que sabía por qué. / Yo no sé por qué no sé. / Mi mayor condena / no es la cicuta / sino examinar a quienes / creen saber algo / en la edad en que se cree saber algo. / La juventud camina por acantilados / con los ojos tapados / y piensa que la dicha está / en el fondo del abismo. / Yo ya soy comedido.

**OINAZTARRIAK HARRIAN IDATZITAKO  
BERTSOAK DUELA 25 URTE**

**Hari katigatuak**

Norbaitek dio  
hiri honetako harresia  
airezkoa dela.  
Hodei urratuaren pean  
orrialde bakan bateko kalea  
buztinezko malkoak darizkion  
kristalezko txori bilakatzen da.  
Gibel solasean  
lerro baten zirkina nabari dezakegu:  
behin batean itua jo nahi izan zuen  
autobidearena.

**Giltza mihizatuak**

Hiriaren atarian  
datza zuhaitza  
albo-ohar baliotsu gisa  
- kutxan gordetako urrezko ernamuina,  
oinarrizko instalazio elektrikoa,  
giltzarria, hiztegia, motiboa-  
Zama lar astunetatik  
arinduta egonagaitik ere,  
legea hausten darrai  
eta bekatuak garbitzeari uko egiten.  
Egurrezko panpina bat  
galtzadarri baten gainean dago, abailduta,  
inprimaki igorri berri baten gainean.

Hari katigatuek eta giltza mihizatuek  
zuhaitza - zenbait orri soltek hartua -  
eta etxea - zenbait gordelekuk bideratua -  
lotuko dituzte  
behin batean - bizitza osorako -  
bere burua otsoz mozorrotzea  
beste biderik izan ez zuen biztanlearentzat.  
Farolak bereganatutako ilargiak  
poema hautsi hau argitzen dihardu.

**VERSOS ESCRITOS EN LA PIEDRA POR EL RAYO HACE 25 AÑOS**

**Hilos encadenados** / Alguien dice / que la muralla de esta ciudad / es de aire. / Bajo una nube rasgada / la calle de una extraña página / se convierte en un pájaro de cristal / que llora lágrimas de barro. / En el epílogo podemos percibir / el movimiento leve de una línea: / la de la autopista que una vez / anheló con dar en el blanco. // **Llaves ensambladas** / En el umbral de la ciudad / está el árbol / como una preciada nota al margen / - brote dorado guardado en un cofre, / instalación eléctrica elemental, / piedra angular, diccionario, motivo -. / A pesar de hallarse exonerado / de cargas demasiado pesadas, / sigue infringiendo la ley / y renunciando a redimir sus pecados. / Un muñeco de madera / yace abatido sobre un adoquín, / sobre un impreso recién expedido. // Hilos encadenados y llaves ensambladas / entretejerán el árbol / - con unos cuantos folios sueltos - / y la casa - guiada por algunas madrigueras - / para el habitante que una vez / - durante toda una vida - / se vió en la obligación de disfrazarse de lobo. / La luna encerrada en un farol / alumbró este poema sesgado.



amaia ilasa



poema inédito de



## ZORIAREN HEGADAK\*

Biziminak eragindako negarrak  
hodei artean urturik  
euriz betetako laino bihurturik  
amaierik gabeko ura dariote  
aro  
oparo  
naharoa birsorturik.

Ortzearen magalean kulunkan  
ene gorputza  
ildo ugarietan ireki  
ernetu  
loratzen dihardu.

Azaleko zimurdurak  
koloreen bide argitsuetan zabalduz  
ene haragietan zizelatu ditu.  
laztan emankorrek  
ildo grinatsuak.

Haizearen igurtziak miazkatutako  
gorputz bñribildua  
denboraren poderioz ximurtua  
xamurtua.

Zoriarekin bat egin naiz  
jakituriz  
jakinminez betetako garai berrietan  
bizirik  
murgil nadin  
bñzigogoa  
inoiz  
hase ez dadin.

\* Camill Claudelleren "L' âge mûre" escultura oroituz

## EL VUELO DEL AZAR\*

El llanto provocado por el dolor vital/ fundido entre las nubes/ convertido en niebla empapada de lluvia/ derrama un agua infinita/ engendrando una era/ fértil/ generosa.// Balanceándose en el regazo del firmamento/ mi cuerpo/ se abre/ brota/ florece en innumerables senderos.// Las arrugas de la piel/ expandiéndose por las luminosas sendas del color/ modela en mis carnes/ pródigas caricias/ apasionados surcos.// Lamido por el roce del tiempo/ el cuerpo sinuoso/ se torna tierno/ rugoso/ por el paso del tiempo.// Aliada con el azar/ me sumerjo viva/ en una nueva estación/ plena de conocimiento y/ sabiduría/ para que el deseo de vivir/ jamás/ se sacie.

\*Recordando la escultura "L'âge mûre" de Camill Claudell

## ERRAIL ZAHARRA

### EZ NAIZ IRISTEN

ezer sortzera  
Sartaldeko anbar kolore  
nekatua nauzu.  
Gauaren pisu beltzak  
zapaltzen nau  
eta mendiek  
ez didate eusten  
urteotako  
gainbehera luzean.

**NIRE IRRIKA**, arrain-ontziko  
arrain gorria bezala,  
aho zabalik, begiak zoro,  
zerbait gozoa atzeman nahirik  
saiatu ohí da arnaska sendoz,  
nekatzen ez den  
betiko saioz.

**BADIHOAZKIT EGUNAK**  
egunen ondoren.  
Badihoazkit egunak.

Gehiago itzuliko ez zaizkidan egunak  
badihoazkit bakoizka,

bakoitzak eskaini izan didan orrialdea  
zurian daramala bakoitzak,

estimatu ez diodan tristuraz.

**URTEEN BURUAN**,  
urte pilaren buruan,  
ugarrak eta denborak  
zatiak jan edo  
itxura hondaturiko  
errail baten moduan  
ikusten dut burua.

**ZAHARRA NAIZ**, paradisua  
akorduetan duena;  
galdutako gozoaren  
zauriondoz bizi dena.

**NEURE MUGAPENA DUT**  
muga eta pena,  
ezinaren kartzelan  
zigortzen nauena.



**ETA ZERU ERTZAREN**  
azken azkenean,  
zerua lurrarekin  
batzen den unean,  
hantxe betí gandua  
begien parean.

**ERRAIL ZAHARRAK**  
beragandik igaro  
ta igarotako trenen  
nostalgia du uger.

**DENBORA EMATEN DUT**  
hitza atzematen.  
Denbora ematen dut.  
Baina ta, denboraren  
ordez ere, denborak  
sarri askotan, ez  
dit hitzik ematen.

**POESIA BADA NIRE**  
denbora zenbaiten jale.  
On dagiola halere.  
Bai baitiot hari zorrik,  
esker onik, sobra ere.

**ERRAILAK IKUSI DITUT**  
ugarrak janda lurrean.  
Lurrak lekua dagie  
beragan gorde daitezen.  
Berehala estaliko ditu  
belar handiz, maiteki.



### EL VIEJO RAÍL

NO ALCANZO/ a producir cosa alguna./ Soy el fatigado/ color ámbar del ocaso./ Me apabulla la noche/ con su peso negro./ Y no me sostienen/ los montes/ en el largo decaer/ de estos últimos años.// MI ANSIA, como rojo pez/ de la pecera,/ de ávida boca, de enloquecidos ojos,/ queriendo alcanzar lo que le agrada,/ se afana con fuerte jadeo,/ en infatigable/ y repetido intento.// SE ME VAN LOS DÍAS/ uno tras otro./ Se me van los días,/ días que jamás retornarán a mí,/ se me van uno a uno,/ llevándose cada uno en blanco/ la página que cada uno me tendió,/ con la tristeza de que yo no se la he estimado.// AL CABO DE LOS AÑOS,/ al cabo de muchos años,/ me veo/ como un raíl/ al que la roña y el tiempo/ le han corroído en parte/ o le han afeado la figura.// SOY ANTIGUO, entre mis recuerdos/ está el paraíso;/ vivo con las cicatrices/ de la felicidad perdida.// LA LIMITACIÓN que sufro/ es mi límite y mi pena,/ la que me castiga/ en la prisión de lo imposible.// Y ALLÍ, EN LO MÁS HONDO/ del horizonte,/ en aquel punto en que cielo y tierra/ se unen/ hay siempre bruma, precisamente allí,/ a la altura de mis ojos.// LA ROÑA del viejo raíl/ es la nostalgia/ de los trenes que han pasado/ uno tras otro por él.// INVIERTO TIEMPO/ en dar con la palabra./ Invierto tiempo./ Pero, demasiadas veces,/ el tiempo no me/ proporciona la palabra/ ni aún a cambio del tiempo.// LA POESÍA REALMENTE DEVORA/ no poca parte de mi tiempo./ Con todo, buen provecho le haga,/ pues de sobra le estoy adeudado/ y agradecido.// HE VISTO RAÍLES carcomidos por el óxido/ sobre la tierra./ La tierra les va haciendo sitio/ para que se alojen en élla,/ y en breve los cubrirá/ con hierba crecida, amorosamente./